



AP PHOTO/DAVID GUTTENFELDER

Fukushimako langileak.

Fukushimara bisitan, ezinbestean labur

BI URTE IGARO DIRA Fukushima zentral nuklearra lehertu zenetik, eta 27 Txernobyleko istriputik. Azken horretan bigarren estalkia eraikitzen ari dira, eta itxura guztien arabera elementu erradioaktiboen kanposantu bihurtuko da. Fukushiman, berriz, erreaktoreen inguruko zaborrak biltzen ari dira oraindik, eta barruan dauden erregai barrak nola eta nora atera hipotesi hutsa dira.

Berriki, leherketaren bigarren urtea betetzearekin batera, TEPCO enpresa japoniarrak eta zentralaren jabeak zentrala ikustera gonbidatu zituen kazetariak. Fukushimatik 50 kilometrora dagoen Iwaki hiriko hotel batetik abiatu ziren kazetari horietako batzuk. Autobusez egin zuten bidaia eta bidean kontrol erradiologikoa egin zieten, hasieran eta amaieran; bitan aldatu behar izan zuten arropa, eta bigarrean aurpegiari itsatsitako maskara jarri zieten. Ikusitakoak zabortege handia zirudien, eta erreaktoreen inguruan ordubete baino gehiago ez zuten egin, bertako erradioaktibitate-maila jasanezina baita. 3.000 langile inguru ari dira lanean, edo etengabeko joan-etorrian, lan egitea zaila baita. Batetik, jantzi behar dituzten arropak deserosoak direlako, bestetik badirelako minutu gutxian egin beharreko hainbat lan, gehiegizko erradioaktibitatea jasan nahi ez bada.

TEPCOko teknikarien azalpenak egiten ari diren lanen inguruak izan ziren, eta ez zuten ezkutatu lan horien segurtasun falta. Badirudi zintzo ari direla lanaren zailtasunak aipatzean, baina beste intentzio bat ere izan daiteke zintzotasunaren atzean: arazo gairainekin topatuz gero, irtenbide posible bakarra erregai milaka tona porlanen azpian uztea izan liteke.

Ildo horretan, aipatzekoa da Garoñako jabea den Nuclenor enpresak Banakako Behin-behineko Gordailua eskatu duela material erradioaktiboa bertan lagatzeko. Zentrala eraisteko derrigorrez eman beharreko urratsetako bat da hori. Espero dezagun gordailua behin-behinekoa izan arren, Garoñaren itxiera behin betikoa izatea. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Nola funtzionatzen du zigarro elektronikoak?

Asko dira zigarroak erretzeari uzteko bideak. Horietako bat zigarro elektronikoa erabiltzea da. Txinan 2005. urtean asmatutako tresnak zigarroaren erreketak simulatzen du: sua piztea, kea usaintzea, ahoan izatea... benetakiko zigarroa dirudi. Ikus hemen nola lortzen den hori.

ttiki.com/48483
(Frantsesez)

Egitura mikroskopikoak 3Dn inprimatzeko orain arteko tresna azkarrena

Alemaniko Nanoscribe DmbH enpresak aurkeztu berri duen 3Dko inprimagailua munduko azkarrena da egitura nanoak inprimatzen. Ile baten diametroa duten egiturak lehen baino 100 aldiz azkarrago inprimatu daitezke orain.

ttiki.com/48484
(Gaztelaniaz)

Zergatik dira sarda bateko arrainak tamaina berdinekoak?

Sydney (Australia) eta Mount Allison (Kanada) unibertsitateetako ikerlari talde batek aztertu egin du arrain sardetan arrainek tamaina berdina edo oso antzekoa izatearen arrazoia. Horrek hainbat abantaila ematen die sardako kideei. Ikerlarion arabera, arrainen sentso naturala dago gagoa.

ttiki.com/48485
(Gaztelaniaz)